



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

25 urte
agoz

Zenb./Nº 6
Urtea/Año 2012
Martxoa/Marzo

25 urte
agoz

IV NEGUKO BIDAIA

Amaitu dugu gure IV Neguko Bidaia, eta nota altuarekin. Denon artean jarri dugu. Alde batetik, interpretatzaileek, bikainak izan baitira bai interpretazioan, bai eta errezitaldi bakoitzaren ostean izan ditugun solasaldietan ere. Bestalde, geuk, etorri garelako eta kontzertu bakoitzerako interes aparta erakutsi dugulako. Guztira, 1200 entzule inguru izan gara. Dagoeneko, hurrengo edizioa abian jartzen ari gara. Eskerrik asko guztioi, zuen parte-hartzeagatik.

Gogoratu:

Bigarren hiru hilabetearen eskolak, hilabete honetako 30ean amaituko dira. Oporrak baino lehen, dagokion txosten pedagogikoa jasoko duzu. Apirilaren 16an hasiko gara berriro. Opor zoriontsuak guztioi!

BERRIAK LIBURUTEGITIK

Minutu Musikalak

Liburutegi-Fonotekak soina duela ez da berria. Musikak, haurrek, mugimenduak soina daukate; baina azken hilabete hauetan, bereziki soina dutenak, bat-batean "MINUTU MUSIKALAK" direlakoen protagonista bihurtzen diren ikasleak dira. Ezin errazago: ikasgelatik irten atrila, tresna, partitura eta... irakaslearekin; eta Liburutegian sartu. Denak isilik, lepoak luzatu egiten dira ikusteko. Zer ari da hor, gela erdian? Jotzen. Entzun egiten dugu; eta ausartenok, galdetu ere egiten dugu. Batzuentzat, zuzeneko musikarekin izandako lehen esperientzia da; eta, noski, beste batzuentzat beren lehen kontzertua bakarlari gisa. Hunkitu egiten du. Lehenago eta geroago eta, erdian, "MINUTU MUSIKALAK".



2012-13 IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA

Matrikulazioa da ikasturteko unerik garrantzitsuenetakoa. Zergatia azalduko dizuegu laburki, eta betetzeko zenbait iradokizun emango dizkizuegu:

1. Zuen matrikulei esker, zeintzuk diren datorren ikasturtean gurekin ikasi nahi dituzuen irakasgaiak jakingo dugu. Eta honekin ezagutuko dugu zenbat plaza ditugun beteta eta zenbat libre irakasgai berriak eskatu nahi dituzuenentzat, lehenengoz gurekin ikastera datozenentzat, eszedentzia eta gero berriro itzultzen direnentzat... Funtsezkoa da, beraz, ikasturtearen antolakuntza egokirako eta guztioi zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.
2. Matrikulazio-ormiaren formatua berria da aurten, berdina ikasle guztientzako. Zuzenki betetzeko, irakasle-tutorearen laguntza erabili, bera baita gurekin ikasleko duzunaren segimendua egiteko erreferentzia. Gainera, ikasturtean zehar eman dizugun informazioa eta web orriaren eskura duzuna ere begiratu dezakezu.
3. Matrikulazio-ormian, egokiak ez diren datuak zuzentzeko atala duzue. Garrantzitsua da behar bezala eguneratuta izan ditugun.
4. Orriaren aurrealdean, datorren ikasturterako tasa, prezio eta hoberiel buruzko informazioa daukazu, matrikulatzeke epeen orogariarekin batera.
5. Eskeraren beheko alde, zuekin eraman behar duzuen frogagiria da. Goian eta behean jarri dituzuen datuak berdina direla baieztatu ezazue; oso garrantzitsua da, galtze, zalantza edo zeintzuk diren eskatu dituzuen irakasgaiak baieztatu beharrekiko kasuan funtsezkoa baita.
6. Hiruhilekoa amaitu baino lehen, matrikulazio-ormia emango dizuegu, zuen tutorearen bidez.
7. Datorren ikasturterako matrikulatzeke epea, apirilaren 16 eta 27 bitartekoa izango da (bi aste oporretatik itzuli eta gero), musika-tresna aukeratu behar duten 1. Mailaren 3. Moduluko eta 2. Mailaren 0 Moduluko ikasleentzat izan ezik. Hautentzat, epea maiatzaren 7 eta 11 bitartekoa izango da.
8. Gurekin ikasi nahi duen eta oraindik matrikulatuta ez dagoen norbait ezagutzen baduzu, maiatzaren 14 eta 31 bitartean izango dute izena emateko epea.

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK, ZUEN ZAIN GAITUZUE.

AGENDA

Martxoa

Martxoak 5: Perkusio ikasleen errezitaldia. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 6: Nuria Busto irakaslearen flauta ikasleen errezitaldia. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 7: Bertako tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udaleko ikastetxeentzat, eta 17:45ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.

Martxoak 13: Trikitixa ikasleen errezitaldia. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 15: Luminita Duca irakaslearen piano ikasleen errezitaldia. 18:00etan "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 16: Txistu ikasle helduen errezitaldia. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 19: Mario Clavell irakaslearen flauta ikasleen errezitaldia. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 20: Musika Lengoiako irakaslearen piano ikasleen errezitaldia. 17:45ean eta 19:00etan "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 23: "Andrés Isasi" Musika Eskolako Bandaren eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren Bandaren errezitaldia Donostiako Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, 19:30ean. Sarrera doan.

Martxoak 26: Eskolako ikasleen hiruhileko-amaierako errezitaldiak. 18:00etan eta 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 27: Eskolako ikasleen hiruhileko-amaierako errezitaldiak. 18:00etan eta 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 28: Eskolako ikasleen hiruhileko-amaierako errezitaldiak. 18:00etan eta 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Martxoak 29: Eskolako ikasle helduen errezitaldia. 18:00etan "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Hileko egutegia

Martxoa

a	a	a	o	o		i	
				1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

Jai-egunak

Eskolaren jarduerak

Jarduerak jai-egunetan